



MDK Swim

Bermeo - Mundaka

2022

IGERILARIAREN GIDA



Igandea

Ekainak 12

2.500 m.

www.mdkswim.com



Irteera




**Bermeoko
portua**






Helmuga

**Mundakako
portua**

EGITARAUA

 <p>Igerilariaren poltsa jasotzea</p> <p>🕒 Ekainak 12, igandea 9:00-10:30</p> <p>📍 Lehendakari Agirre plaza, Mundaka</p>	<p>Derrigorrezkoa da nortasun agiria zein izen-ematearen ziurtagiria aurkeztea igerilariaren poltsa jasotzeko. Igerilariaren poltsa pertsonalki jaso ezin bada, hirugarren batek ere jaso ahal izango du parte-hartzailearen NANaren fotokopia eta izen-ematearen ziurtagiria erakutsita.</p>
 <p>Tren zerbitzua Mundakatik Bermeora igerilariantzat *Tiketeta igerilariaren poltsan</p> <p>🕒 Ekainak 12, igandea</p> <p>📍 Tren estazioa, Mundaka</p> <p>📍 Tren estazioa, Bermeo</p>	<p>Euskotrenek bi tren berezi jarriko ditu antolatzaileen eskura Mundakatik Bermeora joateko. Ordutegia honakoa da:</p> <ul style="list-style-type: none"> • 11:37 • 11:57 <p>Zerbitzu hau zeharkaldiko partaideentzat bakarrik izango da eta tiketeta parte-hartzailearen poltsan sartuta egongo da. Antolatzaileek irteera puntura garaiz joateko gomendioa luzatzen dute. Treneko ibilbidea 3 minutukoa da, eta estaziotik irteera puntura oinez 7 minutu daude.</p> <p>Zerbitzu hau hautazkoa izango da. Hala ere, igerilariaren ARDURA da irteera ordurako irteera gunean egotea, antolatzaileen eta irteera epailearen agindupean egoteko.</p>
 <p>Kontsigna: poltsak utzi/jaso</p> <p>🕒 Ekainak 12, igandea</p> <p>Bi kontsigna:</p> <p>📍 Lehendakari Agirre plaza, Mundaka</p> <p>📍 Bermeo (portua)</p>	<p>Igerilariaren poltsan aurkituko duzuen zinta itsaskorra itsatsi beharko duzue kontsignan utziko duzuen motxilan. Zinta horrek dortsal zenbakia du, eta identifikazioa erraztuko du.</p> <p>ARROPA UZTEKO ETA JASOTZEKO ORDUTEGIA:</p> <p>Kontsigna nagusia (Lehendakari Agirre plaza, Mundaka):</p> <ul style="list-style-type: none"> * Utzi: 9:00 - 10:30 * Jaso: 14:30ak baino lehen <p>Proba egin aurretiko beharrezko:</p> <ul style="list-style-type: none"> * Utzi:: 11:30 - 12:30 (Bermeoko portua) * Jaso: 14:30ak baino lehen (Lehendakari Agirre plaza, Mundaka) <p>Orduz kanpo ekarritako poltsak ez dira jasoko. Poltsetan baliozko objekturik edo objektu hauskorrik ez sartzea gomendatzen da. Antolatzaileak ez dira arduradun egingo objektu horiei gerta lekizkiekeen kalteez. Bestalde, parte-hartzaileak bere poltsa manipulatzeko baimena ematen du.</p>

 <p>Dortsal markaketa</p> <p>⌚ Ekainak 12, igandea</p> <p>📍 Lehendakari Agirre plaza, Mundaka</p>	<p>Derrigorrezkoa da igerilariak sorbalda bakoitzean zein omoplatoan dortsal zenbakia markatzea. Markaketa igerilariaren poltsa jasotzen den gunean egingo da.</p>
 <p>Probaren irteera</p> <p>⌚ Ekainak 12, igandea 12:30etatik aurrera</p> <p>📍 Bermeoko portua</p>	<p>Irteerak bi txandatan banatuko dira. 12:30ean neoprenorik gabeko parte-hartzaileen irteera izango da eta 12:35ean neoprenoa duten igerilariena.</p> <p>Urak probaren asteen bertan erregistratzen duen tenperaturaren arabera, neoprenoaren erabilera zehaztuko da.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Uraren temperatura 18 gradutik beherakoa bada: derrigorrezkoa da neoprenoarekin igeri egitea. • Uraren temperatura 18-20 gradu bitartekoa bada: hautazkoa da neoprenoarekin igeri egitea. • Uraren temperatura 20 gradutik gorakoa bada: debekatuta dago neoprenoarekin igeri egitea.
 <p>Sari banaketa</p> <p>⌚ Ekainak 12, igandea, 14:00</p> <p>📍 Lehendakari Agirre plaza, Mundaka</p>	<p>Sari banaketa neoprenoaren erabilera mugaren araberakoa izango da. Urak probaren asteen bertan erregistratzen duen tenperaturaren arabera, kategoriak eta sariak ezarriko dira (araudian oinarrituz):</p> <ul style="list-style-type: none"> • Neoprenorik gabekoen sailkapeneko lehen 3 sailkatuak, emakumezko zein gizonezko kategorian. • Neoprenorik gabekoen sailkapeneko lehen mundakarra edo bermeotarra, emakumezko zein gizonezko kategorian. • Neoprenoa dutenen sailkapeneko lehen 3 sailkatuak, emakumezko zein gizonezko kategorian. • Neoprenoa dutenen sailkapeneko lehen mundakarra edo bermeotarra, emakumezko zein gizonezko kategorian.

PLANOA

Ibilbidea




Irteera gunea



Itsas zeharkaldiko guneak





ARAUDIA

Proban parte hartu ahal izateko, derrigorrezkoa da parte-hartzaile bakoitzak probaren araudia irakurtzea eta bertako klausula bakoitza betetzea.

1. DATA ETA LEKUA

1.1 2022ko ekainaren 12a.

2. ORDUTEGIA

2.1 Irteera 12:30ean, Bermeoko portuko arrapala.

3. EGITARAU

3.1 12:30etik aurrera, eta 5 minutuko tartearekin, gizonetzkoen zein emakumezkoen kategoria absolutuetarako programatutako 2 irteerak egingo dira Bermeoko portuan.

3.2 Bermeo-Mundaka ibilbidea Bermeoko portuan hasi eta Mundakako portuko arrapalan amaituko da. Guztira 2500 metro izango ditu itsas zeharkaldiak.

3.3 Igerilariaren **ARDURA** da irteera gunera ibilbiderako beharrezko baliabideekin hurbiltzea, irteera orduan antolatzaileen eta irteera epailearen agindupean egoteko.

3.4 Antolatzaileak debaldeko EUSKOTREN zerbitzua jarriko du (aukeran), Mundakatik Bermeoko irteera puntura joateko.

4. PARTAIDETZA

4.1 Bermeo-Mundaka kategoriak:

- Absolutua neoprenorik gabe: lehenengo gizonetzko zein emakumezkoa.
- Absolutua neoprenoarekin: neoprenoarekin igeri egin duen lehenengo gizonetzko zein emakumezkoa.
- Lehenengo mundakarra edo bermeotarra.

4.2 Jaiotze dataren muga:

- Bermeo-Mundaka itsas zeharkaldia: 2008/12/31an edo lehenago jaiotakoak.

4.3 **2008an jaiotako parte-hartzaileek zeharkaldian parte hartu ahal izango dute, norberarena izanik erabakia eta arte-hartzailearen klubari edo arduradunei kirol-irizpideak erabil ditzatela aukeraketa egiteko eskatuko zaie.**

4.4 **Itsas zeharkaldiko partaidetza irekia da, lizentzia EZ da derrigorrezkoa.**

5. INSKRIPZIOAK

5.1 Izen emateak **www.kronoak.com** web orriaren bidez egingo dira.

5.2 Gehienezko partaide kopurua 500 pertsonakoa izango da. Ondoren, 50 partaidereentzat itxaron-zerrenda egongo da.

5.3 Itsas zeharkaldiko izen-emateak 35 € balioko du.

5.4 Parte-hartzaileen arteko aldaketa ez da posible izango. Inskripzioa zorrozki pertsonala eta transferiezina da, eta ezingo du erabili izen-ematea egin ez duen beste inork. Edozeinek bere plaza beste norbaiti transferitzen badio, ekitaldiko istripu baten kasuan edo horrek ekar ditzakeen istripuen aurrean, zuzenean arduraduna izango da. Egoera horretan istripu bat gertatuz gero antolakuntza ez da arduradun egingo.

Antolatzaileek ikusten badute parte-hartzaileek elkarri dortsalak ematen edo onartzen dizkietela,

zigorra jartzeko eskubidea izango dute.

5.5 Antolakuntza batzordeak onespén eskubidea izango du inskribatutako partaideekiko.

5.6 Arropa-zaindegi zerbitzua: parte-hartzaile guztiek arropa-zaindegi zerbitzua izango dute. "Igerilariaren poltsa" jasotzeko garaian partaide guztiei zinta itsaskor bat emango zaie norbere gauzak sartuko dituzten zorroan ipini ahal izateko. Ondoren, zorroa arropa-zaindegian utzi beharko dute. Arropa uzteko eta jasotzeko ordutegia honako hau izango da:

IGANDEA, EKAINAK 12:

Arropa-zaindegi nagusia (Mundaka, Lehendakari Agirre plaza):

- Utzi: 09:00etik 10:30era.
- Jaso: 14:30ak baino lehen.

Proba egin aurretik derrigorrezkoak diren gauzetarako gordailua:

- Utzi (Bermeoko kaian): 11:30etik 12:30era.
- Jaso (Mundaka, Lehendakari Agirre plaza): 14:30ak baino lehen.

Orduraz kanpo ekarritako poltsak ez dira jasoko.

Poltsetan baliozko edo apurkorak diren objektuak ez sartzea aholkatzen du antolakuntzak.

Objektu horiei zerbait gertatuz gero, antolakuntza ez da arduradun egingo. Horrez gain, parte-hartzaileak bere poltsa manipulatzeko baimena ematen du.

6. IGERILARIAREN POLTSA JASOTZEA:

6.1 Igerilariaren poltsak ekainaren 12an jaso ahal izango da Mundakan, Lehendakari Agirre plazan 9:00etatik 10:30era.

6.2 Derrigorrezkoa da nortasun agiria zein izen-ematearen ziurtagiria aurkeztea igerilariaren poltsa jasotzeko.

6.3 Igerilariaren poltsa norberak jaso ezin duenean, hirugarrenengo batek ere jaso ahal izango du parte-hartzailearen NANaren fotokopia zein izen-ematearen ziurtagiria erakutsita.

7. IRTEERAK:

7.1 Irteerak bi txandatan banatuko dira. 12:30ean neoprenorik gabeko parte-hartzaileen irteera izango da eta 12:35ean neoprenoa duten igerilariena.

Hau guztia probaren asteen uraren tenperaturaren arabera aldatu daiteke, araudi honen 11.1 artikuluan adierazten den bezala.

8. PROBA ETETEA. ARRISKU EZA:

8.1 Antolakuntzak ibilbidea aldatzeko, irteera ordua aldatzeko edo proba beste egun batean egiteko ahalmena izango du. Irteera emango balitz, proba gauzatu ez emango da, nahiz eta bidean bertan behera utzi. Proba ezinbestez (kanpo arrazoientatik) eteten bada, izen-emateengatik ordaindutakoa ez da itzuliko.

9. BAJAK:

9.1. Izena eman duen pertsonak lesioengatik edo pisuzko beste arrazoiren batengatik ezin badu parte hartu eta izen-ematea ezeztatu nahi badu, 10 € ko atxikipena egingo zaio.

9.2. Azken orduko baja bada (ekainaren 1a baino geroagokoa), baja onartuko da, baina ez da dirua itzuliko. Hala ere, igerilariaren poltsa jasotzeko eskubide osoa izango du partaideak itsas zeharkaldiko asteburuan Lehendakari Agirre plazan.

Tramite horietarako antolatzaileekin jarri behar da harremanetan.

10. SAILKAPENAK eta SARIAK:

10.1. Araudi honetako 11.1 puntuan adierazitako uraren tenperatura-mugaren arabera sari banaketa izango da.

Urak probaren asteen bertan erregistratzen duen tenperaturaren arabera, kategoriak eta sariak ezarriko dira.

10.1.1 Uraren tenperatura 18 gradutik beherakoa bada, derrigorrezkoa izango da neoprenoarekin igeri egitea.

Sariak neoprenoarekin:

- Gizonezkoen kategoria: lehen 3 sailkatuak.
- Emakumezkoen kategoria: lehen 3 sailkatuak.
- Lehen gizonezko mundakarra edo bermeotarra.
- Lehen emakumezko mundakarra edo bermeotarra.

10.1.2 Uraren tenperatura 18-20 gradu bitartekoa bada, hautazkoa izango da neoprenoarekin igeri egitea. Bi taldeak sarituko dira.

Sariak neoprenorik gabe:

- Gizonezkoen kategoria: lehen 3 sailkatuak.
- Emakumezkoen kategoria: lehen 3 sailkatuak.
- Lehen gizonezko mundakarra edo bermeotarra.
- Lehen emakumezko mundakarra edo bermeotarra.

Sariak neoprenoarekin:

- Gizonezkoen kategoria: lehen 3 sailkatuak.
- Emakumezkoen kategoria: lehen 3 sailkatuak.
- Lehen gizonezko mundakarra edo bermeotarra.
- Lehen emakumezko mundakarra edo bermeotarra.

10.1.3 Uraren tenperatura 20 gradutik gorakoa bada, debekatuta egongo da neoprenoarekin igeri egitea.

Sariak neoprenorik gabe:

- Gizonezkoen kategoria: lehen 3 sailkatuak.
- Emakumezkoen kategoria: lehen 3 sailkatuak.
- Lehen gizonezko mundakarra edo bermeotarra.
- Lehen emakumezko mundakarra edo bermeotarra.

11. ZIGORRAK eta AZKEN AIPAMENA:

11.1 Antolakuntzak beharrezko ikusten dituen zigorrak jarri ahal izango ditu frogatutako edozein irregulartasunen aurrean, izan egiaztatutako denboren inguruan zein beste edozein arlotan. **Segurtasuna bermatzeko asmoz, parte-hartzaile guztiei gomendatzen zaie eskatutako distantzia ordu 1 eta 20 minututan betetzeko gai izatea.**

Bestalde, debekatuta egongo da honako materialak erabiltzea:

- Tirak, "tape" edo tankerakoak.
- Erlojuak.
- Eskumuturrekoa, lepokoak edo tankerakoak.
- Ur irekietarako FINA araudia betetzen ez duten bainujantziak (neoprenozko trajeak).

Erreklamazio guztiak bakarka aztertuko dira.

Uraren tenperatura 20 gradutik gorakoa bada, debekatuta egongo da neoprenoarekin igeri egitea. Uraren tenperatura 18-20 gradu bitartekoa bada, hautazkoa izango da neoprenoa janztea, eta urak 18 gradu baino gutxiago baditu, derrigorrezkoa izango da.

11.2 Antolakuntzak lehiaketa honetarako lehiaketa zuzendari bat izendatuko du. Zuzendari hori izango da zeharkaldiko aginte nagusia lehiaketaren antolaketan eta lehenengo epaileari ez dagozkion beste eginkizunetan.

11.3 Proba edozein dela ere, sorbaldan eta omoplatoan dortsalaren zenbakia markatzea ezinbestekoa izango da.

11.4 Antolakuntzak ohartarazten du proba honek bere gogortasuna duela, eta ur irekietako itsas zeharkaldiek dauzkaten arrisku guztiak dituela. Hori dela eta, prestakuntza egokia izatea eskatzen da, baita osasun egoera ona izatea ere. Beraz, duintasunez bukatzeko gai ez direnei izena ez emateko aholkatzen diegu.

Antolakuntza salbuetsita geratzen da zeharkaldiak parte-hartzaileei eragin diezazkiekeen kalte eta erantzukizunetatik. Izena ematen duten unetik beraiek izango dira beren buruaren arduradun.

11.5 Araudi honetan aurreikusten ez den guztiari dagokionez, honakoak hartuko dira kontuan: Gipuzkoako Igeriketa Federazioaren (GIF) eta Igeriketako Espainiako Federazioaren (RFEN) ur irekietako lehiaketan araudia eta Nazioarteko Igeriketa Federazioaren (FINA) ur irekietako araudi ofiziala.

11.6 Sailkapeneko datuetan (izena eta abizena) zein komunikazioko edozein arlotan (argazkia) bere pribatasuna mantendu nahi duen oro jar dadila harremanetan antolakuntzarekin.

MUNDAKA, 2022



Babesle nagusia

LEKU-ONA

GRUPO_Global Solutions

Babesleak



Babesle instituzionalak



Antolatzailea



Laguntzaileak

